



ELEKTRARIDE

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure proiektua aurrera eramateko ezinbestekoa da gure negozioaren funtsezko jarduera zein den identifikatzea, eta hau eginda, beharrezkoak diren langileak eta beharrezko baliabideak kontratatzeko. Hiru funtsezko jarduera mota bereizten ditugu: ekoizpena, arazoak konpontzea eta plataformak. Nabarmena da gure funtsezko jarduera berezia dela aipatzea, ez baita hiru mota hauen barnean sartzen, zerbitzu bat eskaintzen dugu eta, garraio zerbitzu bat, hain zuzen ere.

Gure balio proposamena guztiontzat garraio esparru bat sortzea eta garraiatzeko aukera era merkean eskaintzea da. Hortaz, bide batez, arazoak konpontzearekin erlaziona dezakegu gure enpresa, dena guztion arazoak konpontzeko helburuarekin sortu baitugu. Hau horrela izan arren, garrantzitsua iruditzen zaigu gure funtsezko jarduera zerbitzu bat eskaintzea dela.

Atal honetan ezinbestekoa da balio proposamena berriro ere gogora ekartzea. Enpresa bezala, gure helburua gure bezeroentzat garraio esparru merke bat eskaintzea da, beti ere auzo batetik bestera garraiatzeko duten beharra asetuz.

Lana egiteko dugun modua eta gure helburua kontuan hartuta, argi dago gure funtsezko jarduera ez dela aurretik aipatutako funtsezko jarduera mota tradizionalen barnean sartzen, eta, oso enpresa berritzaile eta berezia garenez gero, gure jarduera nagusia **zerbitzu** bat eskaintzea dela zehaztu dugu, zehazki garraioarekin lotutako zerbitzu bat.

Plataforma eta sare-jardueraren harira, gure funtsezko jarduera ezagutzera emateko, sare sozialak eta aplikazioa baliatuko ditugu. Oso lagungarriak iruditzen zaizkigu, Informazio guztia eta laguntza hemen barnean egongo direlako.

Ondorioz, argi dago gure funtsezko jarduera zerbitzu bat eskaintzea dela, hau da, STARTinnovak bereizten dituen funtsezko jarduera motetako bat da, zehazki, gure merkatuan dagoen arazo bat konpontzea. Nahiz eta gure jarduera nagusia aipatu, garrantzitsua iruditzen zaigu arazoak konpontzea eta plataformak kudeatzea gure enpresak aurrera eramango duen jarduerak izango direla ere aipatzea.